



PAISAIAREN LEHENERATZEA 2021

SARRERA OROKORRA

Hamar lagunez osatutako taldea kontratatu du Hondarribiko Udalak Lanbidek, tokiko enplegua sustatzeko abiatutako programaren bitartez; zortzi langile (epe luzeko langabetuak) eta bi arduradun zehazki; hauetatik 4 emakumezkoak eta 6 gizasemeak direlarik.

Programaren Koordinadorea batetik, Nestor, **Baso eta Natura Ingurunea kudeatzeko Goi mailako teknikaria. Eguneroko garbitze eta inguru naturalen hobekuntzen lan kokapenen bilaketa eta kudeaketa lanetaz arduratzen da (kokapenen mapak,...e.a).**Honekin batera aurrekontu, erosketa, desbrozadoren eta herramienten konponketa lanak, oporrak,...eta bestelako kudeaketak burutzen ditu, asteko informeeekin batera.

Bestetik, **taldearen arduraduna (monitorea)**, Ainhoa, **Psikologoa**. Kasu honetan, bere lana, **taldea dinamizatzea eta egunerokotasunean sortu daitezkeen gatazkak kudeatzea izango da hein batean**; guzti honek helburu zehatz bati erantzungo dio: bai maila teknikoan baita maila pertsonalean ere, langile zein taldeari dagokien **helburuak lortzeko bidea erraztearena** hain zuzen ere. Asteko informeeekin batera, bestelako kudeaketak ere burutzen ditu, beti ere Nestorrekin koordinatuz.

Lanaren muina: Hondarribiko mendialdeko pista ezberdinak garbitu eta txukuntzea. Bide hertzeak garbitu (bertan aurkitzen diren orbel, adar eta lurra garbituz) uraren pasabidea erreztuz eta aurkitzen den zaborra garbitu. Horretarako esku herramientak eta desbrozadoretaz baliatu gara, EPlekin batera.

Lan ordutegia hasieran 8:30-14:30 bitartekoa izaten hasi zen, astelehenetik ostiralera. Martxoan hasieran ordutegi aldaketa eskaera jaso genuen eta ordu erdiz aurreratu genuen sarrera, 8:00 - 14:00ak bitartekoa geldituz ordutegia.10:30tan hamaiketako egitera gelditzen gara 20 minutuz.

Helburua: epe luzeko langabeei lanerako aukera bat eskeintzea da helburua, aldi baterako bada ere. Langabezian denbora luze eman ondoren, pixkanaka eta modu egokian laneko ohiturak eta errutinak bereganatzea edo eta berreskuratzea, kasuan kasu. Taldean lan egin eta bertako partaide sentitu, lanarekin ahaldunduz.

Bidasoa Bizirik , lan aukera berriak sustatzeko asmoz , jarraipen bat egin die **INGURUMENA LEHENGORATZE TALDEKO PARTAIDEEI**, lanaritzen laguntzeko jarduerekin programa nolabait indartuz. Jarduera horien helburua enpleguarritasunarekin eta enpleguarekin lotutako gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzea izan da. Talde eta banakakoak izan dira jarduera horiek eta gure eguneroko lanarekin koordinatuz burutu dira.

Sei hilabeteko kontratazioak dira, eta ekaina bukaeran amaitutzat emango dute zeregina.



BURUTUTAKO LANAK:

- **Bide garbiketa:**


Udaletxetik eskatutako lan nagusia izan da bide garbiketena. Lehenengo lan egunean pasa den urtean egindako bideen plano bat jaso genuen hauekin hasteko, tramo hauek bukatu genituenean guk erabakitako bide berrietan burutu ditugu gure lanak.

Egindako lanak honakoak izan dira:

- Zabor bilketa
- Orbel bilketa
- Ubideen berreskurapena
- Bideen zabaltzea
- Adar kimaketak
- Bide bazterren desbrozatze lanak (Desbrozadorak erosi ondoren, apiriletik aurrera)

Aipagarria da landa eremuetan lan hauek ziklikoki egitea beharrezkoa dela eta bertako biztanleen kexuak eta eskerrak jaso izan ditugula, beti ere lan hauek maizago egin behar direla adieraziz.

Ondorengo planoetan ikus daitezke 6 hilabete hauetan egindako lana. Urdinez markatutakoak aurreko urtean egin ziren tramoak dira, gorritz markatutakoak guk gehitutakoak.




Montaña eta Akartegi



Hondarribiko
Udala



Zimizarga, Arkolla eta Jaizubia



Zaldunborda inguruak (Jaizubiarainoko hutsunea eremu pribatua da, Golfa)


Guzti hau egin ondoren bide nagusi batzuetan errepassoak egin genituen, honako hauek izan ziren:



Hondarribiko
Udala



Montaña eta Akartegi: Errepassoak



Zimizarga, Arkolla eta Jaizubia: Errepassoak

Adibide moduan egindako lanen argazki pare bat:



Hondarribiko
Udala



- **Landare inbaditzaileen aurkako tratamenduak:**

Alde batetik *Tradescantia fluminensis* landare inbaditzailearen aurkako lanekin ibili gara landarea errotik kenduz pazientzia eta kontu askorekin .

Tradescantia fluminensis landarearen jatorria Hego Amerika da, hona jardinetan jartzeko ekarri zen, inguru naturaletan hedatzen joan da eta azkenik landare inbaditzaile bezala katalogatu da Espainiar estatuan (Real decreto 630/2013 de 2 de agosto).

Landare honek kalte handia egiten dio bertako florari hazten dihoan ehinean lur-azala okupatzen dihoalako densidade handiz saretzen diren estrukturetan. Honek bertako landareen erregenerazioari hazteko zailtasun handiak sortzen dizkio eta beraz hoberena lehen bait lehen kentzea da.

Argazkitan *Tradescantia fluminensis* landarearen identifikaziorako zurtoina, hostoa eta loreak:





Hondarribiko
Udala

Bestetik, *Acacia dealbata*-ren (Mimosa) jatorria Australian dago, jardinetan jartzeko ekarri zen baina edatzeko duen gaitasunagatik estatuko espezie inbaditzaileen katalogoan sartu zen. (Real decreto 630/2013, de 2 de agosto). Gaur egun debekatua dago espezie hau landatzea, izatea, garraiatzea eta saltzea.

*Acacia dealbata*k identifikatu eta txikienak sustraietik atera ditugu, zuhaitz ertainak aizkoraz moztu ditugu (gero txikitu ahal izateko) eta azkenik, mimosa haundienak eraztundu ditugu.


Eraztuntzeko aizkoraz eta aitzurraz baliatu gara.

Zuhaitz handiak hiltzeko erabiltzen da eraztunketa.

Ura eta elikagaiak xilema eta floematik garraiatzen ditu zuhaitzak sustraietatik hostoetara, sistema hau enborretik dihoa baina sakontasun gutxira, azal ondotik.

Enborraren zirkunferentziaren tarte batean azalaren geruza kenduz lortzen da zuhaitzak elikagaiak ezin dituela hostoetara garraiatu eta horrela pixkanaka ahultzen dihoa hil arte. Modu honetan zuhaitza hilik bukatzen du baina zutik, hau biodibertsitatearentzat onuragarria da (intsektu xilófagoentzat elikagaia, zenbait txori eta saguzaharrentzako kabia...).

Gorritz markatutako eremutan *Tradescantia fluminensis*-a kendu genuen, urdinez markatutakoan *Acacia dealbata*ren aurkako lanak egin genituen.





Hondarribiko
Udala

Jarraian ikus daitezke *Tradescantiaren fluminensis*-aren eta *Acacia dealbata*-ren aurkako lan batzuen emaitzak:



Aipagarria da landare inbaditzaileak oso edatuak daudela Jaizkibel osoan (batez ere *Tradescantia*). Guk gure lanak eremu txiki bat berreskuratu nahaian egin ditugu, eta nahiz eta ez dugun denbora izan eremua guztiz bukatzeko lana oso onuragarria izan da taldearentzat kideek lan mota honek eskatzen dituen ezaugarri zehatzak betetzen dituztela ikusi dutelako.

- **Desbrozeak:**

Bide bazterrak desbrozatzeaz gain lan puntual bezala agroaldea inguruan sasiz betetako 615m² eremu bat garbitu dugu. Lehen kolpea Apirila erdialdean eman genuen, bigarrena ekaina erdialdean, sasiak pixka bat hazitakoan hauei kalte gehiago egiteko.

Ondorengo planoan eta argazkitan ikus daitezke lan eremua eta emaitzak:



Hondarribiko
Udala





Hondarribiko
Udala



Goiko argazkiak emandako lehenengo kolpekoak dira, behekoak aldiz bigarrenekoak.




- **Litoralaren garbiketa:**

Azkenik kontratuaren bukaera baina aste pare bat lehenago Jaizkibelen bisita gehien jasaten duten kalak garbitzera joan gara.


“Gipuzkoako itsasertz zerbitzu probintziala”ri baimen formala eskatu genion eta onarpenaren gutuna jaso ondoren Jaizkibeleko hiru kala garbitu ditugu aste batean zehar:



Hondarribiko
Udala



Kalak garbitzeaz gain Axeri elkartea eta alboan dagoen antenaren inguruak, Biosnar ondoan zegoen zabortegi bat (ezin izan genuen dena atera), Jaizkibeleko kostaldeko txabola bat eta Jaizkibeleko errepede nagusian dauden aparkaleku guztiak (antenetaraino, Guadalupeko kanpa barne) garbitu ditugu.





- **Lanaren ondorioak:**

6 Hilabeteko lan ibilbidearen ondoren argi geratzen da Hondarribiako natur eta landa ingurunearen zaintza urte osorako planifikazio batekin burutu beharko litzakela orain arte hasetu gabe egon delako. Gainera horrelako proiektuek aukera ematen dute eskusio egoeran dauden pertsonen enplegugarritasunarekin eta empleguarekin lotutako gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzea. Era berean taldeko kideak lan desberdinetan trebatzeko aukera sortzen da adibidez desbrozadoraren maneioa (Kabezal aldaketak, oinarrizko mantenua...).

Azkeneko orrian 6 hilabete hauetan topatu ditugun hobetu beharreko puntuen sailkapena aurkitu daiteke.

TALDEARI DAGOKIONEZ

- **Lantaldearen definizioa:**

Erakunde baten lan jakin bat egiteko osaturiko persona-multzo bat da, erabakiak modu adostuan hartzen dituen. Lantaldeak egiten duen lanari eta lan honen antolakuntzari **talde-lana** deritza. Pertsona bakar batek egiten duen lan batean ez bezala, ***lantaldean pertsona bakoitzak egin behar dituen lanak zein izango diren eta lan horiek beste pertsonekin nola koordinatu behar den erabaki behar da.***

Helburu zehatz eta amankomun batekin egiten dute lan eta konpromezuz.

- **Lantaldearen garapena:**

Gure kasuan, aurretik elkar ezagutu gabe (ez kasu guztietan) eta perfil ezberdinetako 10 pertsona elkartu gintuzten **Ingurumena eta Paisagintzaren leheneratze Lan Programa** aurrera eramateko helburuarekin. Amankomunean epe luzerako langabetuak izatea zeukaten partaideek.

Hona hemen lantaldearen garapenean emandako pausoak:

1. **Prestakuntza** : Lanaren eginbeharrekoak eta helburuak azaldu genituen. Taldeko partaideak arauak eta beraien betebeharrak definitzen saiatu ziren. Emozioei dagokienez, proiektuarekin gogotsu agertu ziren eta beraien arteko erlazioak zuzenak izateko ahaleginak egin zituzten.
2. **Gatazka**: Aurrera egin ahala helburuak eta prozedurak argiagotzen joan ziren. Kideen arteko ezagutza handiagoa izateak beraien arteko lehenengo zailtasunak sortzera eraman zituen, tentsioak sortuz emozio maialan: bakoitzak bere rola eta bere tokiaren bila zebilen taldean.
3. **Normalizazioa**: Proiektua aurrera ateratzeko elkar ulertzea ezinbestekoa zela ohartzen diren puntura iritsi ziren, honela kideen arteko konfiantza eta begirunea sortuz. Proiektuaren parte sentitzen hasten dira (talde identitatea).
4. **Jarduna**: Lantaldeak kontrolpean dauka eginkizuna eta kideak elkarrekin ikasten dute. Konpromezu maila altua daukate eta lanaldia beraien kabuz eramateko gai dira.



5. **Amaiera:** Puntu honetan, programaren parte haundi bat bukatua dago eta amaierako denbora gutxi gelditzen da. Ilusio maila jeisten da eta honekin errendimendua behera egin dezake, kide batzuegan segurtasunik eza zor daitekeelako. Proiektua isteko momentua iritsi da. Helburua lortu ostean taldea desegiten da.

Taldea osatzen duten pertsonen ekimena bultzatu eta beraien arteko harremanak helburu komunaren alde kudeatzeaz arduratzen den arloari **talde dinamika** deritzo. Eta talde dinamika hori, gure kasuan **psikologoak lideratu** du beti ere koordinadorearekin elkarlanean, prozezu guztian zehar.

TALDEAREN ONDORIOAK:

Programaren prozesuan zehar taldea osatzen joan da aurreko pausuetan azaldu dugun moduan.

Talde identitatea lortu egin da, partaide sentitu dira gehiengoak. Eta egin duten lanarekin ahalduntzen joan dira sei hilabete hauetan zehar; lan aukera berriak planteatzera iristeraino.

Gure lana, prozezu guzti honetan, taldea gidatzea eta laguntzearena izan da, beti ere, helburu nagusiaren hildotik: lan munduan berriz ere sartzea, errutinak, ohiturak, konpromezuak,...berreskuratzea eta lan aukera berriak sortzea, baita pertsonalak ere, proiektu honen amaieran.





ANEXOAK:

ANEXO 1: ARKETAK

- 01/08ko kolmatatutako arketa: <https://maps.app.goo.gl/iLHyT6xXmTgE3nGBA>
- 01/08ko kolmatatutako arketa: <https://maps.app.goo.gl/aDEWASQuvhC9sC7b9>
- 01/12ko kolmatatutako arketa: <https://maps.app.goo.gl/qSDFLBpf2Rj6K4228>
- 01/25ko kokapena ez da zehatza 3 kolmatatutako arketa daudelako eta bide bazterrean daudenez errez ikusten direlako: <https://goo.gl/maps/eBK7cSo17NSEdRpU9>
- 01/29ko lurpean zegoen hidrantea: <https://maps.app.goo.gl/8LzRdTVZiywkZNmNA>
- 01/12ko kolmatatutako arketa eta tuberia puskatua: <https://maps.app.goo.gl/dMzo2mMpMs9YpmGC6uj>
- 02/08ko kolmatatutako arketa: <https://maps.app.goo.gl/5ncU7GjQk991VZLF7>
- 02/10ko kolmatatutako arketa: <https://maps.app.goo.gl/aiscYtMELALF9x7R6>
- 02/12ko kolmatatutako arketa: <https://maps.app.goo.gl/ZWfxJfo3gUpYemWt9>
- 02/23ko kolmatatutako arketa: <https://maps.app.goo.gl/2cA6Vz2NWrZRRJap7>
- 02/25ko Kolmatatutako arketa: <https://maps.app.goo.gl/koqzZN2CWNyeKGLt9>
- 03/26ko Kolmatatutako arketa <https://maps.app.goo.gl/nEKz611H3GLAzEkG7>
- 04/22ko tuberia kolmatatuak: <https://maps.app.goo.gl/fxY2A2tYBEg9yMwV9>
- 05/05ko Kolmatatutako tuberia: <https://goo.gl/maps/o1WZEDffvbn1AP5MA>

ANEXO 2: IHARTUTAKO ZUHAITZAK (Erortzeko arriskua) / BESTELAKOAK

- 01/12 ko Robinia pseudoacacia lehorrak: <https://maps.app.goo.gl/nhMYUZW3GNTqNmuF7>
- 01/18 Kimatu beharreko zuhaitza: <https://maps.app.goo.gl/yN4FVeRpE8toSVWf6>
- 01/20 Erortzear dagoen Robinia pseudoacacia: <https://maps.app.goo.gl/29YXcmo8514rN4XU8>
- 01/27 Bi haritzen adarrak kimatzeko: <https://goo.gl/maps/MvNCg6tvodFrZYhm6>
- 02/18 Kimatu beharreko adarra: <https://maps.app.goo.gl/d9KjM7uYig3RUPkv6>

ANEXO 3 : ESPEZIE INBADITZAILEAK

- Jaizkibel guztian *Tradescantia fluminensis*.



- 01/13ko *Vespa velutina* kabia: <https://maps.app.goo.gl/Ri1bTQqvmEFBbaV1A>
- 01/14ko *Buddleja davidii*: <https://maps.app.goo.gl/abiHNNHZQZJUfzbtPA>
- 01/14ko beste *Buddleja davidii* eta *Tradescantia fluminensis*:
<https://maps.app.goo.gl/T1Z9e471Ty38AtRC7>
- 01/22ko *Vespa velutina*: <https://maps.app.goo.gl/CSxdTjKaQojJZ5jA6>
- 02/18 *Acacia dealbata* aleak, *Buddleja davidii* aleak oihanpean:
<https://maps.app.goo.gl/GHoxNyWN8ZaVga7LA>

ANEXO 4: ZABORTEGIAK

- 02/18ko Jaso beharreko zabortegia: <https://maps.app.goo.gl/6LKKi7YiFW7f9hEt6>
- 03/18ko Jaso beharreko zabortegia <https://maps.app.goo.gl/EJggMGun4Ef2fmHQ9>
- 04/27ko Jaso beharreko zabortegia: <https://goo.gl/maps/E4zupoDvAPDtXccM8>
- 06/18ko Jaso beharreko zabortegia (Biosnar inguruan): <https://maps.google.com/?q=43.380849,-1.838612&entry=gps>

ANEXO 5: ERREPIDE MANTENUA

- 02/22 Puntu honetan ur asko pilatzen da. Errepidea gurutzatzen duen ubide bat egitea ongi legoke:
<https://maps.app.goo.gl/Po6yfompn1bsfxjQ8>
- 02/25 Errepidean dagoen zuloa: <https://maps.google.com/?q=43.352304,-1.815939>
- San Telmotik Gornutzeko bidegurutzerako bidea egoera txarrean dago.

ANEXO 6: PUSKATUTAKO HIRI-ALTZARIAK

- 03/01ko Bankua eta 1. kartela: <https://maps.app.goo.gl/G61W7tvecaYprfge7>
- 03/01ko 2. kartela: <https://maps.app.goo.gl/Kwit4ge9UBz4oGdx7>



Hondarribiko
Udala

PAISAIAREN LEHENERATZEA 2021

Ainhoa Martinez Arrieta
Nestor Uranga Muguruza